

Sindikatuok Jaurlaritzari ohartarazten diogu baldintzak negoziatu eta osasuna bermatu ezean langileak ez direla geletara itzuliko

Datozen egunotan sindikatuak hezkuntzako eragile desberdinekin jarriko dira harremanetan irakurketa elkarbanatu eta erantzun bateratu bat emateko aukerak aztertzeko

Atzo Hezkuntza sailburuak ikasturte amaierari begira ikastetxeetara itzultzeko aurkeztutako plana, langileen ordezkariekin negoziatu eta landu gabeko plana izan da. Osasun krisi honen kudeaketa guztian bezala aldebakarreko erabaki inposatu bat gehiagoren aurrean gaude.

Plana behin ikusita eta ikastetxeen egoera zein den ezagututa, gaur gaurkoz langile zein ikasleen osasuna bermatuz datorren maiatzak 18tik aurrera itzulera abian jartzeko baldintzak ez dira ematen. Plana, motz geratzen diren segurtasun irizpide orokor batzuk jasotzera mugatzen da. Hezkuntza sailak irizpide orokor horiek betetzeko hartuko diren neurriak ikastetxeekin landu gabe hartu ditu, baita neurri horiek abian jartzeko baliabideak aurreikusi gabe ere, zentruetako zuzendaritzengan neurrigabeko ardura maila ezarriz. Itzulera planaren ezaugarri nagusia inprobisazioa eta prezipitazioa direla esan dezakegu beraz.

Egoera honetan erabateko arduragabekeria litzateke datorrean maiatzak 18an planteatutako itzulera abian jartzea, langile zein ikasleen osasuna, eta zabalkundez gizarte osoarena, arrisku larrian jarriko litzatekeelako.

Hau horrela, sindikatuok hezkuntza sailari galdegiten diogu ez dezala ikastetxeen irekiera plana abian jarri langileen ordezkariekin osasuna bermatuz ikastetxeetara presentzialki itzultzeko baldintzak negoziatu eta ahalbideratzeko moduan egon arte.

Egoeraren larritasuna kontuan izanik, datozen egunotan sindikatuok gainerako hezkuntza eragileekin jarriko gara harremanetan gure irakurketa elkarbanatu eta erantzun bateratu bat emateko aukerak aztertzeko.

Sindikatuok langile eta ikasleen osasuna bermatze aldera gure esku dauden tresna eta baliabide guztiak aztertuko ditugu, besteak beste, behar adinako mobilizazio dinamika bultzatzea.

Euskal Herrian 2020ko maiatzak 8an.



Los sindicatos advertimos al Departamento de Educación de que las trabajadoras no retornaran a clase a no ser que las condiciones para el retorno sean negociadas y garanticen la salud

En los próximos días los sindicatos se pondrán en contacto con los diferentes agentes educativos para analizar las posibilidades de compartir la lectura y dar una respuesta conjunta

El plan presentado ayer por la consejera de Educación para volver a los centros de cara al fin de curso ha sido un plan no negociado y no elaborado con las representantes de las trabajadoras. Estamos ante una decisión unilateral e impuesta como ha sucedido durante toda la gestión de esta crisis sanitaria.

Una vez visto el plan y conocida la situación de los centros, a día de hoy no se dan las condiciones para poner en marcha el retorno a partir del próximo 18 de mayo garantizando la salud de las personas trabajadoras y el alumnado. El Plan se limita a recoger unos criterios generales de seguridad que se quedan cortos. El Dpto de educación ha establecido las medidas para la aplicación de estos criterios sin haberlas trabajado con los centros y sin prever recursos para poder ponerlas en marcha, cargando a las direcciones de los centros con un nivel de responsabilidad desproporcionado. El plan de retorno se caracteriza por la improvisación y la precipitación.

En esta situación sería una absoluta irresponsabilidad poner en marcha el retorno planteado para el 18 de mayo, ya que la salud de las personas trabajadoras y el alumnado, y por extensión la de toda la sociedad, se vería seriamente comprometida.

Por ello, los sindicatos exigimos al Departamento de Educación que no ponga en marcha el plan de apertura de los centros educativos hasta que no se negocien con la representación de las trabajadoras las condiciones de seguridad adecuadas que garanticen la salud de las trabajadoras.

Teniendo en cuenta la gravedad de la situación, en los próximos días los sindicatos nos pondremos en contacto con el resto de agentes educativos para compartir nuestra lectura y analizar las posibilidades de dar una respuesta conjunta.

Los sindicatos analizaremos todas las herramientas a nuestro alcance para garantizar la seguridad y la salud de trabajadoras y alumnado, entre otras impulsar la dinámica de movilizaciones necesaria para ello.

En Euskal Herria el 8 de mayo de 2020.

